

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TOLOSALDEKO
MANKOMUNITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018**

Joan den urtarrilaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Tolosaldeko Mankomunitatearen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldikoa.

Aldeko iritzia adierazi du HKEEk 2018ko **urteko kontuak** direla-eta.

Mankomunitateak zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautu duen lege-araudia; alabaina, prozedura ireki bidez esleitu ziren bi zerbitzu-kontraturen lizitazioari ez zitzaion publikotasunik eman ez EBAOn ez EAOn.